



# Lezo

## 2027

2023 — 2027  
**legegintzaldi planaren  
aurkezpena**  
Presentación del plan  
de mandato

# AURKIBIDEA

**Sarrera** 1

**Prozesua** 2

**Herritarrek  
identifikatutako  
erronkak** 3

**Irudikatu Lezo** 4

**Misioa** 6

**Errronkak** 7

**Helburuak** 7



## SARRERA


Dokumentu honetan Lezoko udalak 2023-2027 legegintzaldirako burututako legegintzaldi plana jasotzen da. Legegintzaldi plan hau udal gobernuko kideekin eta teknikariek burututako prozesuaren ondorioa da.

Plan hau honela egituratuta dago: **misio 1, 5 helburu neurgarri** eta helburu horietara iristeko **51 ekintzen** baitan.






# PROZESUA







## HERRITARREK IDENTIFIKATUTAKO ERRONKAK

Udal gobernuko kideak kalean herritarrei elkarrizketak egin zizkieten beren kezkek jasotzeko asmoz. Honakoak dira herritarren identifikatutako erronkak modu mailakatuan.

1 MAILAKOAK	Mantenua	Haurrentzako parkeak	Giro gutxi	Aparkalekuak	Irisgarritasuna	Segurtasuna	Trafikoa
2. MAILAKOAK	Zaborrak	Komertzioa	Udal zerbitzuak	Etxebizitza			
3. MAILAKOAK	Argiteria	Portua	Garraio publikoak	Bidegorria			

## IRUDIKATUTAKO LEZO

### Elkar ezagutza

Bere herri kokor izaera mantentzen duen Lezo izaten jarraitzea. Herri txikia, herritarren elkar-ezagutzan bere herri izaera eraikitzen duena, baina era berean herri modernoa. Herri sentimendu eta atxikimendua garatu duen herria.

### Berdea eta urdina

Itsasoari irekia eta landa lurrari lotuta bizi den herria. Bere landalur tradizio eta konexioari eusten diona.

### Jolasa Alaitasuna Komunitatea Herri bizia

Alaitasunaren apologia egiten duen Lezo. Herri bizia, eta era berean lasaia, parte-hartze komunitarioan oinarritua.

### Euskara Euskal kultura

Bere historirari begiratu, euskara eta euskal kultura erdigunean kokatzen dituen herria.

### Oinezko Lezo

Oinezko Lezo, errepideak banatzen ez dituen eta konektatua



## MISIOA

Enpatiatik komunitatea eraikiz pozik bizi den herri koxkorra





## ERRONKAK

### Enpatiatik komunitatea eraikiz pozik bizi den herri koxkorra

#### ONGIZATEA

Ongizate emozionala gero eta erronka handiagoa bihurtzen ari da gure gizarte ereduetan. Erronka horri erantzuteko beharrezko da feminismoak dakarren zaintza ikuspegia kontuan hartzea, eta haurren zein gazteen ongizate emozionalean arreta berezia jartzea.

#### ELIKADURA ETA ENERGIA BURUJABETZA

Gipuzkoa mailan nekazaritza ekologikoan lantzen den azalera handienetakoa dago Lezon. Aukera handiak sortzen dira beraz, Lezo Gipuzkoako herri erreferentea bihurtzeko gai honetan. Era berean, energiaren erronkari heltzea ezinbesteko izango da.

#### EUSKARA

Zabaldua da dagoeneko euskararen erabilera sortzen duen kezka. Ezinbesteko erronka da beraz Lezorentzat euskararen erabilera handitzeko urratsak egitea.

#### OINEZKOEN LEZO BERDE ETA URDINA

Lezo bi errepide eta portu industrial batek markatutako herria da. Gehiago esango genuke: errepideek banatutako herria da. Egoera horri buelta ematea lehen mailako erronka da Lezo herri bizigarria bihurtzea.

#### HERRI BIZIA

Lezok bere herri izaera sendotzea ezinbesteko erronka izango da. Herri identitatea eraikitzea, pertsonen arteko ezagutza eta herri atxikimendu eta parte-hartzea oinarri izango duen komunitatea eraikiz.

## HELBURUAK

Enpatiatik komunitatea eraikiz pozik bizi den herri koxxorra

### ONGIZATEA

2027. urterako Lezoko herritarren **ongizate emozionala hobetzea, zaintzen duen herria** eraikiz eta haur eta gazteen ongizate emozionalean arreta berezia jarritz.

### ELIKADURA ETA ENERGIA BURUJABETZA

2027. urterako Lezo **bertako nekazaritza ekoizpenean Gipuzkoako herri erreferentea bihurtzea**, herri gunea landa eremuarekin konektatuz, eta **energia trantsizioaren bidean** lehen urratsak burutzea

### EUSKARA

2027. urterako Lezoko **euskararen erabilera ehunekoa 5 puntu handitzea (%29 --> %34)**, eta herritarren **atxikimendu maila indartzea**

### OINEZKOEN LEZO BERDE ETA URDINA

2027. urterako **oinezko eta bizikletentzako gunek % 75 handitzea** eta **Lezoko 70.000 m2 ingurune natural birgaitzea**, lasaitasunerako eta jolaserako gunek sortuz

### HERRI BIZIA

2027. urterako lezotarren **elkar-ezagutza** eta **herri bizitzarako atxikimendua indartzea**, eta **parte-hartze komunitarioaren ehunekoa 3 puntu handitzea (%16 --> %19)**

## ONGIZATE EMOZIONALA

2027. urterako Lezoko herritarren **ongizate emozionala hobetzea, zaintzen duen herria** eraikiz eta haur eta gazteen ongizate emozionalean arreta berezia jarriz.

1/

### Zaintza ekosistema osatzeko prozesua

Lezoko zaintza ekosistema publiko-komunitarioa garatzeko prozesua garatu beharko litzateke. Usurbilen garatu duten prozesuaren antzekoa izan liteke, kanpo aholkularitza batek gidatua. Zaintza behar dutenak, zaintzaileak, herriko eragile desberdinek zein udalak ekosistema horren zein funtzio bete dezakeen edo bete beharko lukeen definitzea izango litzateke helburua. Ondoren, horrek dakartzan moldaketak edo aldaketak garatzen joateko.

2/

### Berdintasun plan estrategikoa berrikusi

Lezoko herria feministotik ulertu eta eraikitzea ezinbestekoa da. Feminismoak herria irudikatu eta ulertzeko moduan eraldaketa handia suposatzen du, eta Lezoko udalak sakondu nahi du eraldaketa horretan. Horregatik proposatzen da legegintzaldi honetarako Berdintasun plan estrategikoa berrikusi, eta egungo errealitate eta beharretara egokitzea.

3/

### Emakumeen txokoa eratzea

Feminismoa oinarri hartuta, emakumeen ahalduntzea izango da udalak estrategiko bezala kokatzen duen beste lan ildoetako bat. Horretarako, emakumeen txokoa sortzea ezinbestekoa izango da.

4/

### Berdintasun kontseilua sortzea

Feminismoa eta berdintasun ikuspegia udalean zein Lezoko herrian txertatzeko ezinbestekoa izango da gobernantza eredu eraginkor bat izatea. Horretarako proposatzen da berdintasun kontseiluaren sorrera.

5/

### Indarkeria matxistaren kontrako ekintza plana

Indarkeria matxistaren kontrako protokoloa existitzen bada ere, hura berrikustea ezinbestekoa izango da, eta horren baitako legegintzaldiko ekintza plana burutzea. Egitekoen artean, ezinbestekoa izango da erakundeen arteko koordinazioa hobetzea.

6/

### Eragile ezberdinekin Lezoko haur eta gazteekin ongizate emozionala landu eta herri hezitzailea sortzea

Bestelako herrietan gertatzen ari den herri hezitzaileen esperientzia kontuan hartuta, Lezoko haur eta nerabeekin lan egiten duten eragileekin batera herri hezitzailea bultzatzea proposatzen da. Lezoko umeak zein balioen baitan hezi nahi ditugun definitzea, eta era berean, beren ongizate emozionalari erantzun dioten prozesuak martxan jartzea izango da helburua.

7/

### Hezkuntza eta gaztedia departamentua sortzea aztertzea

Une honetan Lezoko udalak ez du hezkuntza eta gaztedia departamenturik, eta ezta teknikaririk ere. Kontuan izanik haur eta gazteen ongizate emozionala hobetzea helburu bezala jartzen dela, departamentua sortzeko aukerak aztertuko dira.

8/

### Haur eta nerabeen ongizate emozionala garatzeko kirol eragileen ituna

Kirol munduan gertatzen diren harremanek eta bertan transmititzen diren baloreek garrantzi handia dute Lezoko haur eta nerabeen ongizate emozionalean. Kirol elkarteak bilduko dituen mahai honek balore horiek identifikatu eta aplikatzeko ituna adostuko dute. Itun honek plan honetan agertzen den 26 ekintzarekin lotura izango du.



## ONGIZATE EMOZIONALA

2027. urterako Lezoko herritarren **ongizate emozionala hobetzea, zaintzen duen herria** eraikiz eta haur eta gazteen ongizate emozionalean arreta berezia jarritz.

9/

### 360 udalerrriak proiektua garatzea

Proiektu honen helburua haur eta nerabeen artean egon daitezkeen arrakalak aztertu eta horiek ekiditeko plana burutzea da. Horretarako, haur eta nerabeekin harremandutako eragileak biltzen ditu proiektuak. Proiektu honek harremana eduki beharko du haur eta nerabeen ongizate emozionalari erantzuteko ko-sorkuntza prozesuekin.

10/

### Haur parkeak egokitzeko plana

Haur, gazte, eta familien beharriaz erantzuteko Lezoko haur-parkeen eraldaketa prozesua garatzea da ekimen honen helburua. Udalerrian dauden parkeak eta naturguneak aztertu, eta parte hartzea prozesu baten bidez, parke-sare anitza eta belaunaldiartekoa osatzea aurreikusten da.

11/

### Etxe hutsak merkaturatzeko etxeko jabe eta erabiltzaileekin prozesua burutzea

Etxe hutsak merkaturatzeko lehenik eta behin entzute prozesu sakon bat egitea proposatzen da. Alegia, ezinbestekoa da etxe hutsen jabeen kezak entzutea, eta baita erabiltzaileen beharrak zeintzuk diren jakitea ere. Hartara, prozesu honen baitan, etxe huts horiek erabilgarri jartzeko ideiak sortuko lirateke. Horien artean, egon litezke ere etxe hutsak merkaturatzeko kanonak ere.

12/

### Belaunaldi arteko ekimenak sustatzeko eragile anitzeko mahaia eratu eta plana egin

Dagoeneko burutu den Tipi Topa belaunaldien arteko esperientzia arrakastatsuekin jarraitu eta zabaltzeko ekimena izango da. Horretarako, 3. adinarekin erlazionatuta dauden eragileak eta baita gazte eta nerabeekin erlazionatutakoak biltzen dituen mahaia eratu litzateke, guztien artean belaunaldi artekotasuna lantzeko plana burutzeko.

13/

### Jubilatu elkarteak egungo errealitatera egokitzeko prozesua

Adinberriekin batera burutzen den proiektua da hau. Proiektu honen helburua jubilatu elkarten izaera eta helburuen inguruko hausnarketa burutzea da. Izan ere, jubilatu elkarteek erantzuten dioten jubilatu perfila kontuan izanik (gehiengoa jubilatu zaharrak izaten dira, jubilatu gazteagoak urrun kokaturik), horiei buelta bat ematea izango da helburua, belaunaldi arteko topagune bihurtzeko.

14/

### Muittujakin ekimena

Zer behar da bizitza osasuntsua izateko? Nola egin beharko genuke? Zer jakin beharko genuke? Ekimen honen helburua herritar guztiei bizitza aktibo eta osasuntsua izateko ezagutza transmititzea izango da.

## ELIKADURA ETA ENERGIA BURUJABETZA

2027. urterako Lezo **bertako nekazaritza ekoizpenean Gipuzkoako herri erreferentea bihurtzea**, herri gunea landa eremuarekin konektatuz, eta **energia trantsizioaren bidean** lehen urratsak burutzea

15/

### Urrullo Baserria bertako nekazaritza eta elikadura subiranotasunaren zentroa

Gipuzkoako Foru Aldundiarena den Urrullo baserrian bertako nekazaritza sustatzeko ekimenei lotuta zentro bat garatzea proposatzen da. Lehen sektoreari bultzada eman eta berrikuntzak bultzatzea izango da asmoa, lezoarrentzako beste lan esparru batean lan egiteko aukera agerian utziz.

16/

### Agroaldea garatu eta indartzeko GFA eta Behemendirekin elkarlan mahaia sortu

Gaur egun Lezon hiru agroaldea daude martxan eta Gipuzkoa mailan nekazaritza ekologikoan lantzen den azalera handienetakoa dago herrian. Agroalde horiek GFAk kudeatzen ditu. Agroalde horiek GFArekin elkarlan mahaia eratzea ezinbestekoa ikusten da.

17/

### Antxillastegi eremua agroaldeara batzea aztertzea

Urrullo baserria eta agroaldeak baliatuz bertako nekazaritzan erreferentea izango den proiektua garatzea izango da helburua, eta horretarako, laster libratuko diren Antxillastegi lur eremu eta eraikina proiektura batzea aztertuko da.

18/

### Lezoko Energia Komunitatea

Udalak Energia Komunitatearen sorrera sustatzea eta honen motore izatea proposatzen da, partehartze proaktiborako baliabideak eskainiz.

19/

### Trantsizio energetikorako plana garatu

Lezo burujabetza energetikorako bidean urratsak egiten joatea bilatuko da proiektu honekin. Horretarako energia plan bat burutzea ezinbestekoa izango da, egungo egoera aztertu eta hurrengo urteetan hartu beharreko neurriak definituko dituen.

20/

### Lezoko komertzioetan Lezoko produktuak saltzeko ekimena

Lezoko komertzio eta nekazal ekoizleen artean bertako produktuak saltzeko harremanak sustatzea izango da helburua.

21/

### Xoxolurreko lur eremuak eskuratu

Xoxolurreko eremua birgaitzeko asmoz, udalak bertako lur eremuak eskuratzea ezarriko du helburu gisa. Honek lotura du 28. eklintzarekin.

## EUSKARA

## Euskararen Paparazziak

ARGAZKI LEHIAKETA 2018 · EUSKARA GURE KOMERTZIOETAN

2027. urterako Lezoko **euskararen erabilera ehunekoa 5 puntu handitzea (%29 --> %34),**  
eta herritarren **atxikimendu maila indartzea**

22/  
App bidez  
688 741 909

### Euskara sustatzeko plan estrategikoa egin

Euskararen sustatzeko ekintza plan-estrategikoa definitzeko, kanpo-aholkularitzak dinamizatutako parte hartze prozesua garatzea aurreikusten da. Ondotik, bertatik ateratako ekintza-plana gauzatu beharko da.

23/

### Euskara ardatz, kulturartekotasuna landu

UEMAren proiektua da hau, ikastetxeetan lantzen dena. Proiektu honen helburua kultur artekotasuna euskara erdigunean jarriz izango da. Proiektua Lezon martxan jartzea proposatzen da.

24/

### Aisialdian euskara sustatzeko ituna

Urteetan zehar ekimen ezberdinak burutu dira aisialdian haur eta gazteek euskaraz garatu dezaten beren jarduna. Aisialdiaren parte handi batek kirol munduarekin du zerikusia. Itun honen helburua kirol elkarteekin orain arte egindako lana ebaluatu, dauden dauden gabeziak aztertu eta aurrera begirako konpromisoak hartzea izango da, beti ere, guztien artean eraikitako itunaren bitartez.

25/

### Gazteen ahozketasuna landu

Mundu digitalak euskararen erabilera duen garrantzia kontuan izanik, ikastetxeekin lantzea asmoa duen proiektua da. Helburua, mundu digitalean gazteen euskarazko ahozketasuna presente egoteko ekimenak burutzea izango da. Era berean, ahozketasuna lantzeko asmoz ere kokatuko litzateke "Gu ere bertsotan" programa.

26/

### Euskararen familia transmisioa

Euskararen familia transmisioa garatzeko programa izango da hau.

27/

### Merkataritza euskalduntzeko prozesua garatu

Merkataritza euskalduntzeko prozesua izango da hau, merkatariekin batera burutuko dena.



## OINEZKOEN LEZO BERDE ETA URDINA

2027. urterako **oinezko eta bizikletentzako guneak % 75 handitzea** eta **Lezoko 70.000 m2 ingurune natural birgaitzea**, lasaitasunerako eta jolaserako guneak sortuz

28/

### Xoxolur, Pisbe eta Zubitxoko eremuak birgaitzea

Hiru eremu hauetan eragitea da asmoa. Zubitxo erreka eraldatzea, garbitze eremua berreskuratzeko aukera landuz, eta aisialdi eremu erabilgarria bilakatuz. Xoxolur, zein Pisbe eremuak txukuntzea eta balionitzekoak izango diren eremua sortzea.

29/

### Donibanerako bidea portutik bideratzea

Jaizkibel hiribidea kaletartzeko, lehenik eta behin Donibanera doan trafikoa bertatik ateratzea izango da lehenasuna. Trafiko hori portutik bideratzea proposatzen da. Portua ez da udal eskumenen barnean kokatzen, horregatik dagozkion gestioak burutuko ditu Lezoko udalak, bai Gipuzkoako Foru Aldundian eta baita Portuko aintaritzan ere, behar hori errelitate bihurtzeko.

30/

### Lezoko industrialderako trafikoa herrigunetik kanporatzea

Lezoko industrialdera doan trafikoa pisutsua herrigunetik ateratzea lehenasunezko jarduna izango da udalarentzat. Aukera bat badagoela uste du udalak, Irunera doan autopistan, Lanbarren industrialdea inguruan, irteera bat burutzea, industrialde horri eta Lezoko industrialdeari zerbitzua emateko.

31/

### Jaizkibel hiribidea kaletartzea

Jaizkibel hiribidea kaletartzeko ezinbestekoa da Lezoko herriarentzat. Jaizkibel hiribidetik doan errepideak Lezo bitan banatzen du, eta banaketa horrekin haustea ezinbestekoa izango da. Portutik trafikoa bideratzea da Udalak egiten duen aukera, baina hori ezinezkoa gertatuko balitz, legegintzaldi honetan bestelako neurriak hartu beharko dira Jaizkibel kalea kaletartzeko.

32/

### Lezon parking disuasorioak eraikitzea

Aparkalekuaren arazoari aterabidea emateko, baina aldi berean herri barrua kotxez jositik egon ez dadin, herriaren kanpokaldean egongo liratekeen parkingak eraikitzea: Arraitokin eta marmolerian.

33/

### Mugikortasun plana garatzea

Lehenasuna emango zaie irisgarritasun neurriari eta baita oinez eta bizikletaz mugitzeko neurriari. Bizikleta neurrien artean, bidegorriak konpondu, hauek osatu eta bizikletentzako aparkalekuak jartzea leudeke.

34/

### Garraio publikoaren askatasuna aztertu

Mugikortasun planetik eratorzen den ekintza da hau. Lezoko garraio publikoaren azterketa egin, eta berau eraginkortzeko plana litzateke: batetik, Donostiako autobusen ordutegia eta maiztasuna egokitzeko beharra aztertu beharko litzateke; bestetik, Irun / Hondarribira doan linea Lezotik igaroz, eta hartara landa eremuari ere irtenbideak emateko; eta azkenik, oraingo Bidez Bidez zerbitzua osatzea, zerbitzu hau mugatua geratzen baita.

35/

### Mantenu plana burutzea

Obra eta zerbitzu departamentutik Lezoko herriaren mobiliario eta obra txikien mantenu plana burutuko da, auzoen eskaera eta beharrei erantzun gona

## OINEZKOEN LEZO BERDE ETA URDINA

2027. urterako **oinezko eta bizikletentzako guneak % 75 handitzea** eta **Lezoko 70.000 m2 ingurune natural birgaitzea**, lasaitasunerako eta jolaserako guneak sortuz

**36/**

**Lezo alaiia bihurtuko duten guneak parte-hartze komunitarioaren bitartez sortu**

Lezoko kaleak alaitasuneko kaleak bihurtzea izango da helburua. Horretarako, kaleko eremu grisak identifikatu eta horiek koloreztatzeke ekimena izango da hau. Izan daiteke paretetan muralak egitea, edo gune konkretuak koloreztatzea.

Horretarako, parte-hartze komunitarioa, eta bereziki umeen parte-hartzea, bultzatuko da.

**37/**

**Altamira parkea birgaitzea**

Altamirako anfiteatroaren inguruko parkea birgaitzea, herritarrei gune berde, atsegin, eta erabilgarria eskaintzeko

**38/**

**Jaizkibelgo basoa berreskuratzeko ekimenak burutzea**

GFArekin batera Jaizkibelgo basoak berreskuratzea izango da ekimen honen helburua

**39/**

**Gaintxurizketako pasarela garatzea**

## HERRI BIZIA

2027. urterako lezotarren **elkar-ezagutza** eta **herri bizitarako atxikimendua indartzea**, eta **parte-hartze komunitarioaren ehunekoa 3 puntu handitzea (%16 --> %19)**

40/

### Erabilera anitzeko zentro zibiko sozialaren proiektua garatu

Elkar eragiteko guneak sortu nahi ditu Lezoko udalak, eta era berean Lezok dituen beharrei erantzun. Horregatik zentro zibiko sozial zabal bat eraikitzea proposatzen du udalak. Zentroa, Lezoko eragileen topaleku litzateke, eta liburutegia, ludoteka edo gizarte zerbitzuak bezalako beharrei erantzungo lieke ere. Funtsean komunitatea eraiki edo indartzeko gunea irudikatzen da. Horretarako lehenik, proiektua garatuko du.

41/

### Lezoko memoria historikoa ezagutarazi eta transmititzea

Herri atxikimendu eta identitatea eraikitzeke ezinbestekoa izango da Lezoko memoria ezagutaraztea eta hura transmititzea. Lezoren historia ezagutu, izan garena eta gertatutakoa jaso.

42/

### Merkataritza eta bizitza komunitarioa aktibatzeke plana burutzea

Merkatari txikiak dira herri bizitzaren protagonista nagusietako bat. Merkataritza eta bizitza komunitarioa aktibatzeke plana da proposatzen duguna. Plan hori merkataria eta erabiltzaileekin batera burutuko da, eta besteen artean, herri merkataritza aktibatzea izango du helburu.

43/

### Lezoko harrera-plana

Lezora bizitzera etortzen diren herrikide berriei harrera prozesua zer nola egin beharko geniekeen definitu beharko da. Horrela, prozesu horren helburua litzateke, herritar berri horiek ahalik eta azkarren eta erosoan txertatzeko bertako herri-bizitzan. Beti ere bertako hizkuntza eta kulturaren errespetua, euren jatorrizko kultura eta hizkuntzaren errespetuarekin behar bezala uztartuz.

44/

### Lezoko "agora"

"Agora" honen helburua elkarrizketarako eta herri-batzarretarako topagunea sortzea da. Bertan, lezotarrak biltzeko toki litzateke hau, iritzi eta pentsamenduen trukaketarako toki. Leku desberdinak egokitzeke aukera egon liteke: Markesane, Saldise, Altamirako anfiteatroa...

45/

### Lezon elkar-ezagutza eta harremanetako aukerak sustatuko dituzten eremuak egokitu

Kasu askotan, kale eremua ez dago pentsatuta elkarrizketak eta harremanak garatzeko. Esate baterako, eserleku gehienak elkarren ondoan eseri eta aurrera begira egoteko moduan daude ezarrita. Hemen proposatzen dena, eremu horiek identifikatu eta interbentzio txikien bitartez horiek eraldatzea izango da, elkar-ezagutza eta elkarrizketak gertatzeko aukerak eskeiniz.

46/

### Zer da Lezo? Lezoko identitatearen eraikuntza komunitarioa

Belaunaldi ezberdinak harremanetan jartzen dituen ekimena da hau. Bakoitzaren ikuspegitik Lezotar egiten gaituen identitate hori komunitarioki eraikitzea izango da helburua. Horretarako, zaharren, etorri berrien, gazteen edo haurren ahotsa jasotzea izango da asmoa. Era beran, euskara ardatz izatea bilatuko da.

47/

### Udal eraikina berritzea, irisgarritasuna bermatzeko

Udalaren eraikina berritzea proposatzen da, bi helburu izanik: irisgarritasuna bermatzea, eta XXI. Mendeari erantzungo dion udala izatea.



## HERRI BIZIA

2027. urterako lezotarren **elkar-ezagutza** eta **herri bizitarako atxikimendua indartzea**, eta **parte-hartze komunitarioaren ehunekoa 3 puntu handitzea (%16 --> %19)**

**48/**

### Udala eta herritarren arteko komunikazioa garatzeko tresnak sortu

Herritarrei zerbitzu egokiago bat emateko hauekin komunikazio tresnak garatzea proposatzen da. Honen bitartez, inzidentzien erantzun garden eta azkarragoa ahalbideratuko litzateke. Era berean, herritarren parte-hartzea bultzatzeko aplikazio bat sortzea aztertuko da, udal informazioa jaso eta udalaren berri izateko.

**49/**

### Lezoko herri hedabide berria

Egungo egoera ikusita, beharrezkoa da Lezoko ikuspegi autozentratua izango duen hedabide bat sortzea. Proiektu publiko - komunitarioa izango litzateke, eta ondo aztertu beharko litzateke erabili beharreko kanalak zeintzuk izan beharko liratekeen (telegram, audioa, bideoa, digitala...).

**50/**

### Lezoko gobernantza sistema garatzea

Herritarrekin komunikazioa mantentzeko tresnez gain, herritarrak ahaldu eta etorkizuneko Lezo elkarrekin eraikitzeko guneak sortzea izango da asmoa. Horretarako, lankidetzazko gobernantza sistema bat eraikitzea proposatzen da, herriko eragileak eta auzoak presente izango lituzkeena.

**51/**

### Udal zerbitzuen katalogoa burutzea

Herritarrek udalak eskeintzen dituen zerbitzuak zeintzuk diren jakitea ezinbestekoa izango da. Udal zerbitzuen katalogoak herritarrei udalak eskeintzen dituen zerbitzuetarako informazio eta sarbidea erraztea du helburu.

# Lezo

## 2027



Lezoko Unibertsitateko  
Udala